

## DATU PERTSONALEN INGURUKO ESKUBIDEAK ERABILTZEKO ESKABIDEA

### 1. INFORMAZIOAREN TITULARRAREN ETA/EDO BERONEN ORDEZKARIAREN DATUAK

#### IZEN-ABIZENAK

#### NORTASUNA EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

*Erantsi nortasuna egiaztatzeke dokumentuaren kopia bat.*

#### HELBIDE POSTALA

#### HELBIDE ELEKTRONIKOA

#### TELEFONOA \*

### 2. ORDEZKARIAREN DATUAK

#### IZEN-ABIZENAK

#### NORTASUNA EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAREN ZENBAKIA

*Erantsi nortasuna egiaztatzeke dokumentuaren kopia bat.*

#### HELBIDE POSTALA

#### HELBIDE ELEKTRONIKOA

#### TELEFONOA \*

\* sinboloaz markatutako eremua betetzea ez da nahitaezkoa eskabidea bideratzeko. Aitzitik, eskubideren bat erabiltzeko aurkeztutako eskaerak zalantzarik sortuko balu harremanetan jartzeko eskatzen da eremua betetzeko.

### 3. ERABILI NAHI DEN ESKUBIDEA

Eskubide hauek erabiltzeko eska daiteke IRUNVI IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA NSAren aurrean: datuak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko, datuak ezabatzeko, datuen aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, datuak eramateko, erabaki automatizatuen gai ez izateko, emandako baimena ezeztatzeko eta datuen nazioarteko transferentziaren esparruan aplikatu beharreko bermei buruzko informazioa jasotzeko eskubideak. IRUNVIk jarraian datorren zerrenda jarriko du eskuragarri, interesdunek zer eskubide erabili nahi duten adieraz dezaten.

Hona, zerrenda zabalgarri batean, erabil daitezkeen eskubideak:

#### □ **Datuak eskuratzeko eskubidea:**

- IRUNVI nori buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den jakiteko eskubidea
- Datuak interesdunak eman ez bazituen, haien jatorria jakiteko eskubidea
- Datuak zertarako erabiltzen diren jakiteko eskubidea
- Dagozkion datuak zer kategoriatakoak diren jakiteko eskubidea
- Datu pertsonalak zer hartzailerik edo zer hartzaile kategoriarik jakinarazten zaizkion jakiteko eskubidea, bereziki hartzaileak nazioarteko erakundeak edo hirugarren pertsona edo erakundeak direnean
- Ahal dela, datu pertsonalak gordetzeko zer epe aurreikusten den jakiteko eskubidea eta, bestela, epe hori zehazteko zer irizpide erabiltzen diren jakitekoa
- IRUNVIk datu pertsonalak erabiliz erabaki automatizaturik hartzen duen (tartean, profilik osatzen duen) jakiteko eskubidea

#### □ **Datuak zuzentzeko eskubidea:**

- Datu pertsonal osatugabeak osatzeko eskubidea
- Dagoeneko errealitatearekin bat ez datozen edo zehaztugabeak diren datu pertsonalak eguneratzeko eta zuzentzeko eskubidea

#### □ **Datuak ezabatzeko eskubidea:**

- Zertarako bildu edo tratatu ziren datuak, dagoeneko horretarako beharrezkoak ez direlako
- Datuak tratatzeko oinarritzat erabilitako baimena ezeztatu nahi eta beste legitimazio batean oinarritu ezin delako
- Datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea arrakastaz erabili delako
- Datu pertsonalak legez kontra tratatu direlako
- IRUNVIk ezarri zaion legezko eginbehar bat bete behar duelako

#### □ **Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea:**

- Datu pertsonalak zuzentzeko eskatu delako, IRUNVIk arduraduna den aldetik datuak zuzenak diren egiaztatzen duen bitartean
- Interesduna datu pertsonalak ezabatzearen aurka egonik, tratamendua legez kontrako delako
- IRUNVIk datuak tratamenduaren helburuetarako behar izan ez baina interesdunak errekamazioak aurkezteko edo haien aurka babesteko behar dituelako
- Datuen tratamenduaren aurka egin delako, IRUNVIren arrazoi legitimoak interesdunaren eskubidearen gainetik dauden egiaztatzen den bitartean

- **Datuak eramateko eskubidea:** Ematen zaizkigun datuak erabilera arrunt eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasotzeko eta IRUNVIk eragozpenik jarri gabe tratamenduaren beste arduradun bati transmititzeko eskubidea; eta, ikuspegi teknikoetik posible bada eta, betiere, datu pertsonalak interesdunaren baimenean edo interesdunarekiko kontratu

batean oinarrituz eta bitarteko automatizatuena bidez tratatzen badira, datuak zuzenean tratamenduaren beste arduradun bati transferi dakizkion eskatzeko eskubidea

- **Aurka egiteko eskubidea:** Datu pertsonalak erabiltzeari utz dakion eskatzeko eskubidea, nori buruzko datu pertsonalak okerrak direla edo dagoeneko beharrezkoak ez direla uste denean adibidez; eta, datuak zuzeneko marketin helburuetarako erabiltzen badira, tratamenduaren aurka egiteko eskubidea, are profilak osatzearen aurka egitekoa, zuzeneko marketinarekin harremana duen neurrian. Eskubide horiek erabiltzeko, edo marketin mezuak bidaltzeari utz dakion eskatzeko, helburu komertzialetarako bidaltzen diren mezu elektronikoetan baja hartzeko edo harpidetza eteteko ematen den aukera erabil daiteke. Noiznahi erabil daiteke datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea, noren egoera partikularrarekin lotutako arrazoiak direla medio, datu pertsonalen tratamenduaren legezko oinarria IRUNGO UDALAREN interes legitimoak direnean, nork uste badu bere eskubideak antolakundearenen gainetik daudela. Hala ere, IRUNVIK datu pertsonalak tratatzen jarraitu ahalko du baldin eta premiazko interes legitimoak dituela egiaztatzen badu edo erreklamazioak aurkezteko edo haien aurka babesteko behar baditu.
- **Datu pertsonalen tratamenduan oinarritutako erabaki automatizatuena (tartearen, profilen osakeraren) gai ez izateko eskubidea:** IRUNVIK datuen tratamendu automatizatuena bakarrik oinarrituz eta pertsona baten partaidetzarik gabe hartzen dituen erabakien gai izatearen aurka egiteko eskubidea; betiere, erabaki horiek norengan legezko ondorioak dituztenean edo beste nolabait eragin esanguratsua dutenean. Nor horrelako erabaki baten gai izan bada eta ez badago ados, IRUNVIKekin harremanetan jar daiteke, eta erabakia aztertzeko eskatu, pertsona bati parte harraraztearen, noren ikuspuntua adieraztearen edo erabakia nolana izan aurkaraztearen. Kasu hauetan, ez da izango aurka egiteko eskubidea: erabaki automatizatuaren interesdunarekiko kontratu bat egiteko edo betetzeko beharrezkoa denean, legez baimenduta egonik interesdunaren eskubide eta askatasunak babesteko neurri egokiak badirenean edo interesdunaren baimen esplizituan oinarritzen denean.

Mesedez, adierazi zure eskaerari ahalik eta egokien erantzuteko beharrezkoak edo garrantzitsuak iruditzen zaizkizun xehetasun guztiak:

Formularioa behar bezala beteta eta antolamendu juridikoaren arabera baliozkoa den nortasun agiri ofizialaren fotokopia bat erantsita bidali beharko da. Hirugarrenen izenean jarduten direnek ordezkariaren nortasun agiria eta interesduna ordezkatzeko den egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Erantzuna hogeita hamar egunean jakinaraziko da gehienez ere, baina epe hori beste bi hilabete luzatu ahalko da baldin eta eskaera konplexua bada edo IRUNVIk hainbat eskaerari erantzun behar badie.

Adierazi nola nahi duzun erantzuna jakinaraztea:

- Posta elektronikoz bidez
- Posta bidez

Data

---

---

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA.** **Arduraduna:** IRUNVI.  
**Helburua:** Antolakundeak noren datu pertsonalak tratatzearekin lotutako eskubideak erabiltzeko eskaerei erantzutea. **Legitimazioa:** Legezko eginbeharren betetzea. **Informazio gehigarriko eskubideak:** [www.irun.org/irunvi](http://www.irun.org/irunvi) webguneko pribatutasun atarian eskuratu daitezke datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehigarria.